



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko apirilaren 23a

50. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, uztailearen 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 192. artikulua aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontu-hartzaile nagusiak jarritako eragozpen baten desadostasunari eta Audenasak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa baiesteari buruz 2021eko otsailaren 24ko gobernu-erabakien kaltegarritasun aitortpena egin dezan, ondoren haiek administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da COVID-19aren aurkako Txertatze Plana berrantola dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da trebakuntza eta prestakuntza emozionaleko plan bat gara dezan plaza itunduak dituzten egoitzetako langileentzat. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen aldaketa bat sustatze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osagarri bat bidera dezan, autonomoen, enpresa txiki eta ertainen eta nekazaritzako elikagaien enpresen zenbait kolektiborentzako laguntza-sorta baten bitartez, baldin eta gutxienez ere % 30eko fakturazio-beherakada jasan badute. Osoko Bilkurak eze-tsi du (8. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da energia berriztagarriak sortzeko proiektuen garapenari laguntzeko ingurumen legeria bat presta dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nazioarteko Diru Funtsak zergei buruz egingako proposamenak azter ditzan. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPEkin batera egin ditzan 2022-2023 ikasurtean Matematikako Gradua eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua ezartzeko egin beharreko azterketak eta azterlanak. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialeko urbanizazio-obrei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Aroztegiko Udalez gaindiko Plan Sektorialeko obren hasierari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako kulturako pertsona ospetsuen urtebetetzeak edo santu-egunak ospatzeari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (16. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 4/2021 Foru Lege-dekretua, apirilaren 14koa, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Susperterako Europako Bitartekoetatik heltzen diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko (17. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 192. artikulua aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 192. artikulua aldatzeko Foru Legea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 192. artikulua aldatzekoa.

HITZAURREA

Urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege-dekretua onesteak, energia-trantsiziorako eta kontsumitzaileen babeserako neurri urgenteei buruzkoak, ekarri du autokontsumoa suspertzen hastea, batik bat amaierako kontsumitzaile diren pertsonen artean.

Energia-trantsizioa egitearen aldeko apustua ezinbestekoa eta urgentea da. Premisa horretatik abiatuta, eta elektrizitate-merkatuko prezio-igoeraren egungo testuinguruan, elektrizitate-autokontsumoberriztagarria ezinbesteko elementua da kokontsumitzaileak energia garbiagoa eta merkeago eskuratzea lortzeko.

Aipatu lege-dekretua onetsi arte, autokontsumo-jarduna ozta-ozta zegoen zabaltzen hasia, oztopo jakin batzuk bazeuden-eta, jarduera hori zailtzen, pizgarrigabetzen edo ekonomikoki bide-

raezin egiten zutenak. Oztopo horietako bat gisa identifikatu da udal obra-lizentzia bat eskuratzeko administrazio-baimenaren izapidetzea nahitaezkoztat galdatzea, horrek izapidea astundu egin baitu epe oso luzeekin, autokontsumorako instalazio fotovoltaiakoen ezarpen egokia behaztopatzen dutenak.

Autokontsumo berriztagarriaren ezarpenak energia-faktura berehalakoan jaisteko modua emanen die autokontsumo hori instalatzen duten kontsumitzailea, eta, gainera, handizkako merkatutik energia-eskaria murriztuko da, halatan ekarpena eginez handizkako elektrizitate-merkatuan prezioak beren horretan eusteari bai eta jaisteari ere, ingurumen-egoera hobetzeari eta hidrokarburo-inportazioa murrizteari, halatan pagamendubalantzari mesede eginez.

Autonomi erkidegoek onetsitako araudi ezberdinek autokontsumorakoak diren honelako energia-ekoizpeneko instalazioetarako obra-lizentzia lortu behar hori bertan behera utzi dute pixkanaka, eta izapide horren orde behartzen dute dela aurretiazko jakinarazpena egitera, dela erantzukizunpeko jakinarazpena egitera behin instalazioa paratu eta gero. Legegintzazko erreformen testuinguru horren argipean ikus daitezke Balear Uharteetako 12/2017 Legea, abenduaren 29koa, Hirigintzako, Extremadurako 11/2018 Legea, abenduaren 21ekoa, Lurralde- eta Hirigintza-antolamendu jasangarriari buruzkoa, azaroaren 26ko 16/2019 Lege-dekretua, Larrialdi klimatikorako neurri urgenteak hartu eta energia berriztagarrii bultzada ematekoa, martxoaren 9ko 2/2020 Lege-dekretua, Andaluziako ekoizte-jarduna sustatzeko araubidea hobetu eta sinpletzekoa, edo berriagoa den Aragoiko 1/2021 legea, otsailaren 11koa, sinplifikazio administratibokoa.

Nafarroaren kasuan, interpretazio juridiko desberdinak izan dira Lurraldearen Antolamendu eta

Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginarekin 192. artikulua arautzen duenez; izan ere, 1. apartatuko e) letrak “obra txikiak” aipatzen ditu, eta udal ordenantzak ziren kontzeptu hori zehazten zutenak, bai eta azaltzen zutenak ere ea obra horietan sartzen ote zen autokontsumorako eguzki-plaka termiko edo fotovoltaikoen instalazioa. Horregatik gertatzen da ezinbesteko, hain zuzen, foru lege honen bidez egiten den aldaketa, xedatutako duena argi uztea eguzki-energiaren autokontsumorako tankera honetako instalazioek ez dutela beharko aurretiaz udal obra-lizentzia lortzea, baizik eta erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena egitera behartzen dutela. Zenbait salbuespen ezartzen dira; halatan, obra-lizentzia hori beharrezkoa izanen da instalazioak kultur intereseko ondasun edo ondasun katalogatu gisa deklaraturiko eraikinetan egitekoak izan, eraikinaren zimenduetan edo egituren eragiten dutenean eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar dutenean, aplikatzekoa den ingurumen-araudiaren arabera.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategineko 192. artikulua, horri g) eta h) letra berriak gehituz 1. apartatuan, honako testu hau dutenak:

“g) Eguzki-energia aprobetxatzeko autokontsumorako instalazioak, eraikin edo egituren nahiz aparkaleku-pergolen gainean paratuak, potentzia-mugarik gabe. Honako instalazio hauek ez dira araubide horretara lotuta egonen:

– Kultur intereseko edo katalogaturiko ondasun gisa deklaraturiko eraikinetan eginak direnak; halakoetan, foru lege honen 62.7.c) artikulua jasotakoa izanen da aplikatzekoa.

– Eraikinaren zimenduei edo egiturari eragiten dietenak.

– Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar dutenak, aplikatzekoa den ingurumen-araubidearen arabera”.

“h) Eraikinen barruan dauden ibilgailu elektriko-etarako errekarga-puntuak, non eta ez duten eraginik kultur interesekotzat deklaraturiko ondasunetan edo beste edozein babes-araubideren pean dauden ondasunetan”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroarako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko apirilaren 15ean egindako bileran, erabaki zuen aintzat hartzea foru lege proposamen bat, zeinaren bidez Nafarroarako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea. Foru Lege proposamen hori Navarra Suma talde

parlamentarioak aurkeztu zuen, eta 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroarako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2021eko apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea foru lege proposamen bat, zeinaren bidez Nafarroarako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea. Proposamen hori Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu zuen, eta 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/PRO-00003).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin, Foru Lege proposamena, zeinaren

bidez Nafarroarako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat hasiko da, 2021eko maiatzaren 17ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarrekin eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte proposamenari.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontu-hartzaille nagusiak jarritako eragozpen baten desadostasunari eta Audenasak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua baiesteari buruz 2021eko otsailaren 24ko gobernu-erabakien kaltegarritasun aitortpena egin dezan, ondoren haiek administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontu-hartzaille nagusiak jarritako eragozpen baten desadostasunari eta Audenasak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua baiesteari buruz 2021eko otsailaren 24ko gobernu-erabakien kaltegarritasun aitortpena egin dezan, ondoren haiek administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2021eko otsailaren 24ko gobernu-erabakien kaltegarritasun aitortpena egin dezan, ondoren haiek administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko. Erabaki horien bidez, honako hauek egiten ziren:

Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren eta Kontu-hartzailletza Nagusiaren artean sortutako

desadostasuna ebaztea, Audenasak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua baieste aldera Ekonomia eta Ogasun Departamentuak proposatutakoaren bidean. Agindu horrek 2020ko azaroko likidazioari dagokion faktura ordaintzeko agindu zuen, Nafarroako Gobernuak AP-15rako zeukan deskontu-politika zela eta.

Onestea Víctor Torres Ruiz jaunak, zuzendari nagusi gisa eta Audenasaren ordezkari gisa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua. Agindu horrek 2020ko azaroko likidazioari dagokion faktura ordaintzeko agindu zuen, Nafarroako Gobernuak AP-15rako zeukan deskontu-politika zela eta. Fakturaren zenbatekoa 6.284.728,28 eurokoa zen. Errekurritutako foru aginduan finkatutako zenbatekoa dagoeneko ordaindu zaionez Audenasari, gainerako zenbatekoa ordaindu behar da, hau da, 5.077.559,88 euro”.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da COVID-19aren aurkako Txertatze Plana berrantola dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da COVID-19aren aurkako Txertatze Plana berrantola dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du Txertatze Plana berrantola dezan eta aurkez dezan txertoen eskuratze-aldiei buruzko aurreikuspen berrietara doitutako eredu bat, hilabete batean".

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da trebakuntza eta prestakuntza emozionaleko plan bat gara dezan plaza itunduak dituzten egoitzetako langileentzat.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da trebakuntza eta prestakuntza emozionaleko plan bat gara dezan plaza itunduak dituzten egoitzetako langileentzat".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du trebakuntza eta prestakuntza emozionaleko plan bat gara dezan plaza itunduak dituzten egoitza guztietan, langileei tresna nahikoak emate aldera COVID-19aren ondorioz bizitutako bezalako krisiei aurre egin ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu planaren barruan

kontuan har dadin talde-terapiak egitea, egoitzetako langileen ongizate emozionala eta osasun mentala lantzen ahalbidetuko dutenak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laneko arriskuen prebentzioaren alorreko plan berezi bat gara dezan egoitzetako langileentzat, zeinean jasoko baita zentroen arduradun diren enpresa eta entitateen zuzendaritzen konpromisoa, prebentzioaren kudeaketaz "barne staff" delakoa osatzen dutenak arduratzekoa, ahal den modurik autonomoenean eta plantillen parte-hartze aktiboan oinarrituta.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan hori betetzen dela bermatzeko bide batzuk ezar ditzan, lagungarriak, kontrolekoak eta ikuskapenekoak. Aipatu plana egoitza guztietan aplikatuko da".

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen aldaketa bat sustatze aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen aldaketa bat sustatze aldera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dugu. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen aldaketa bat sustatzeko, indarkeria matxista agertzen ahal den arlo berri bat jasotze aldera; hain zuzen, bizitza politiko eta instituzionalaren arlo publikoa”.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osagarri bat bidera dezan, autonomoen, enpresa txiki eta ertainen eta nekazaritzako elikagaien enpresen zenbait kolektiborentzako laguntza-sorta baten bitartez, baldin eta gutxienez ere % 30eko fakturazio-beherakada jasan badute.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko apirilaren 15ean egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osagarri bat bidera dezan, autonomoen, enpresa txiki eta ertainen eta nekazaritzako elikagaien enpresen zenbait kolektiborentzako laguntza-sorta baten bitartez, baldin eta gutxienez ere % 30eko

fakturazio-beherakada jasan badute”. Mozioa Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko apirilaren 13ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da energia berriztagarriak sortzeko proiektuen garapenari laguntzeko ingurumen legeria bat presta dezan.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko apirilaren 15ean egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da energia berriztagarriak sortzeko proiektuen garapenari laguntzeko ingurumen legeria bat presta dezan. Mozioa Carlos Pérez-Nievas López de Goicoe-

chea jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko apirilaren 13ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nazioarteko Diru Funtsak zergei buruz egindako proposamenak azter ditzan.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nazioarteko Diru Funtsak zergei buruz egindako proposamenak azter ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko kide den eta EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

COVID-19ko pandemiaren kalteak ugariak izan dira eta arlo ezberdinak ukitu dituzte: osasuna, jarduera ekonomikoa, diru-sarrerak (publikoak eta norbanakoak) eta abar luze bat. Askotan

aipatu dugunez, COVID-19ak sorturiko krisia osasun-krisia baino harago doa. Ezkutuan ziren krisiak azaleratu ditu pandemia honek.

COVID-19ko pandemiak sorturiko kalteei aurre egiteak inbertsio handiak eskatu eta eskatzen jarraitzen ditu. Ez dakigu noiz arte, baina oraindik birusa eta beren ondorioak gure artean daude. Orain arte, gaur egun eta datozen urteotan ere, pandemiaren aurkako neurriek inbertsio handiak eskatuko dituzte. Baina, aldi berean, pandemiaren ondorio bat izan da diru-sarrera publikoen gutxipena. Daukagun erronka da: nola erantzun gero eta handiagoak diren gizarte-beharrei, diru-sarrera publiko gutxiago dugunean?

Orain arte nafar erakundeek emandako erantzuna zorpetzea izan da. Epe motzean beharrezkoa, baina aurrera begira neurriak hartu beharko ditugu bai zorra ordaintzeko bai gizarte-beharrei erantzuteko diru-sarrera nahikoak izateko.

EH Bilduk proposamen ezberdinak planteatu ditu diru-sarrerak handitzeko, baina ez dira onartu. Baina arazoak bere horretan dirau eta kezka hori ez dago gure artean soilik.

Hilaren hasieran, Nazioarteko Diru Funtza erakundeak argitaratzen duen Zerga Monitore izeneko azken txostenean, arazo horren inguruko hausnarketa egiten du eta hainbat proposamen plazaratzen ditu.

Lehen kapituluan, Zerga-erantzunak egokitzea izenburu pean, horrelako proposamena plazaratzen du:

- Pandemiarekin lotutako finantzaketa-beharrei erantzuten laguntzeko, agintariek diru-sarrera edo ondare handiei aldi baterako ekarpena ezartzea azter lezakete, COVID-19ren osteko berreskurapenerako ekarpen gisa. Oinarrizko zerbitzuetarako sarbidea hobetzeko behar diren baliabideak metatzeko, babes-sareak indartzeko eta Garapen Jasangarriko Helburuak betetzea ahalbidetuko duten ahaleginak areagotzeko, zergen arloko erreformak egin behar dira estatu eta nazioarte mailan, batez ere susperraldiak bultzada hartzen duen heinean.

Bigarren kapituluan, Aukera zuzen bat izenburu pean, honako baieztapenetik abiatzen da: "Desberdintasun iraunkor handiek COVID-19 pandemiaren eragina okertu dute, eta krisiak, aldi berean, areagotu egin ditu desberdintasun horiek".

Eta horri aurre egiteko planteatzen du "politika ekonomikoko erantzunak elkar indartzen duten eta gurpil zoro bat sortzen duten desberdintasunaren alderdi desberdinak (diru-sarrera, aberastasuna, aukerak) aitortu behar dituzte".

Horren harira zehazten du politika ekonomikoko erantzunak jaso behar dituzten elementuak, eta horietako bat da "Beharrezko diru-sarrerak biltzea" eta hauxe da egiten duen proposamena:

- Ekonomia aurreratuek diru-sarreraren tributazioaren progresibitatea areagotu dezakete, eta oinordetza/dohaintzen gaineko zergak eta higiezin tributazioa areagotu. COVID-19 berreskuratzeko ekarpenak eta enpresen "gehiegizko" mozkinen gaineko zergak ere har daitezke kontuan. Ondarearen gaineko zergak ere planteatzea daitezke, aurreko neurriak nahikoak ez badira. Hazten ari diren eta garatzen ari diren merkatu-ekonomiek gastu sozial gehiago finantzatzeko zerga-ahalmena indartzean jarri behar dute arreta.

EH Bilduren ustez, kontuan hartu beharreko proposamenak dira, beren inguruko hausnarketa eskatzen dutenak, aipatu neurriak abian jartzeari begira.

Horregatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak ondokoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

1. Azter ditzala Nazioarteko Diru Funtza erakundeak plazaraturiko zergen inguruko proposamenak, bai diru-sarrera edo ondare handiei ezarri diezaieken aldi baterako ekarpena, bai zerga ezberdinetan era orokorrago batean planteatzea daitezkeen aldaketak.

2. Hausnarketa horren emaitza aurkeztu dezala Parlamentu honetan hiru hilabeteko epean.

Iruñean, 2021 apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPekin batera egin ditzan 2022-2023 ikasturtean Matematikako Gradua eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua ezartzeko egin beharreko azterketak eta azterlanak.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita NUPekin batera egin ditzan 2022-2023 ikasturtean Matematikako Gradua eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua ezartzeko egin beharreko azterketak eta azterlanak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita NUPekin batera egin ditzan 2022-2023 ikasturtean Matematikako Gradua eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua ezartzeko egin beharreko azterketak eta azterlanak.

NUPen egungo eskaintza akademikoa 25 gradu eta 6 gradu bikoitzek osatzen dute. Uste dugu beharrezkoa dela eskaintza hori zabaltzen joatea, gure gizartearen bilakaeran eta eskari profesional berrietan oinarrituta. Medikuntzako Gradua ezartzeko aukera mahai gainean jarri zenean, NUPek egiten zituen inkesten arabera gizartearen ehuneko 84k uste zuen NUPek titulazio gehiago eskaini behar zituela. Navarra Sumatik planteatzen dugu bi gradu berri ezartzeko egin beharreko azterketak eta azterlanak egin daitezen: Matematikako

Gradua eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua. Gainera, bi gradu horiek ezartzeak aukera emanen liguke zortzi gradu bikoitz berri ezartzeko, egungo eskaintzan lehendik daudenetatik abiatuta: sei Matematikakoarekin eta bi Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietakoarekin.

Unibertsitateetako Ministerioaren "Espainiako Unibertsitate Sistemaren datuak eta zenbatekoak, 2019-2020" txostenaren arabera, nafar unibertsitarioen ehuneko 31,4 atera zen Nafarroatik unibertsitate presentzialetan ikasteko. Portzentaje horrek berez justifikatzen du NUPen unibertsitate-gradu berriak sortzea.

Matematikako graduari dagokionez, azken urteotan handitu egin da titulazio horretako eskaria (batik bat, lan-merkatuan gertatu diren aldaketengatik), Internet of Things eta Big Data erabakigarriak diren neurrian eta negozioek informazio-base handiei etekin handiena ateratzeko gai diren profesionalak behar dituzten neurrian. Ikerkuntzan –teknologikoan nahiz ekonomiko, mediko edo demografikoan– oso beharrezkoak dira matematikako ikasketak; bereziki, kalkulu, estatistika edo matrize-aljebra arloetan. Baina matematikarien eskaria bereziki hazten ari da laborategietan eta medikuntz nahiz farmazia-ikerkuntzako enpresetan, kontsulta-enpresetan, banketxetan, finantza-enpresetan, komunikazio- eta marketin-enpresetan, hezkuntzan edo segurtasun- eta logistika-enpresetan.

Matematikak tresna ondo balioetsia eta beharrezkoa da COVID-19aren pandemian, bai iragarpenaren eta diagnosi-fasearen esparruan, bai farmako eta tratamendu berriak garatzen ere. Datuak aztertzeke eredu matematikoak beharbeharrezkoak dira azterlan epidemiologiko eta immunologikoetan, baina baita birus ororen prozesuak, hedapena eta kutsatze-ahalmena –edo horiek moteltzeko eta desagerrarazteko probabilitateak– modelizatzeko erabiltzen diren funtzioak eraikitzeke ere. Matematikak baitezpadakoak izan dira COVID-19aren iragarpen eta diagnosi-fasean, bai eta farmako berriak garatzeko ere. Baina ez dezagu ahantz ezen matematikak, zientziaren esparruan hain erabilgarriak izateaz gain, osasun-

baliabideak planifikatzeko eta ospitaleetan nahiz osasun etxeetan erabakirik egokienak hartzen laguntzen duten optimizazio-teknikak aplikatzeko ere direla baliagarri. Eta eskala handiko osasun-sektoreko prozesu ia-ia guztietan ageri da estatistika: laginketa-tekniketatik hasi eta tratamenduak eta farmakoen konparazio, ezein aldagairen portaera eta bistaratze-tekniketaraino.

Gradu horrek unibertsitarioen artean interes handirik sortzen ez zuen urte batzuen ondoren, eskariak izugarri gora egin du Matematikako graduaren egungo enplegarritasun handiagatik eta tituludunen moldaeraztasunagatik, zeinari esker lana aurki baitezakete sektore ia gehienetako enpresetan. Nazio mailan modan dago, hainbeste non ingeniartzen tokia hartu baitu unibertsitarioen lehenetara dagokienez. Eskaria hain handia izateak eragina izan du gradu hori egiteko beharrezkoa den gutxieneko notan: orain dela urte batzuk 5koa zen, eta oraingo ikasturtean, berriz, 12koa izan da. Ikasketa horien eskaria ia ehuneko 120 igo da bost urtetan.

Matematikako gradudunen langabezia-tasa ehuneko 7,54koa da, Matematikako Dekanoen Konferentziak laneratzeari buruz egiten duten azterlan baten arabera. Halaber, txostenak dio langabezia-tasa 4,64ra jaisten dela ikasketak bukatu eta bi urtera; bost urte igaro eta gero, berriz, ia denek daukate lana (ehuneko 96,7).

Nafarroan, Matematikako gradua eskaintzen duen unibertsitate bakarra Iruñeko UNED-Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala da. Nafar ikasle batek, Nafarroatik irten behar du gradu hori egin nahi izanez gero. Gradu bikoitzei dagokienez, Espainian 50 daude gaur egun. Horiematik, honako hauek jar litezke hemen, lehendik dauden gradue-

tan oinarrituta: Matematika + Informatika; Matematika + Ekonomia; Matematika + Lehen Hezkuntza; Matematika + Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza; Matematika + Datuen Zientzia, eta Matematika + Telekomunikazioetako Teknologietako Ingeniaritza. Hortaz, gure ustez baitezapadako eta behar-beharrezkoa da NUPEk gradu hori eskaintzea.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduari dagokionez, eskari handiko titulazioa da, baina eskaintzen dituen irtenbide profesionalak aldatu egin dira azken urteotan. Bost dira, nagusiki, esparru profesionalak: irakaskuntza (irakaskuntzako masterra eginda), errendimendua, osasungintza, kirol kudeaketa, eta aisialdia.

Titulazio hori egin nahi duten nafar ikasleek kanpora irten behar dute. Gradu bikoitzei dagokienez, Espainian hamabi daude gaur egun. Horiematik, honako hauek jar litezke hemen, lehendik dauden graduetan oinarrituta: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua + Fisioterapia eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua + Lehen Hezkuntza; hartara, NUPen Tuterako campusa bultza liteke, Fisioterapiako gradua han egiten baita.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du NUPEkin batera egin ditzan 2022-2023 ikasturtean Matematikako Gradua eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua jartzeko egin beharreko azterketak eta azterlanak.

Iruñean, 2021eko apirilaren 13an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

F saila:
GALDERAK

Galdera, klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa.**ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera idatzi hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Atzo, 2021eko apirilaren 8an, Diputatuen Kongresuak onetsi egin zuen Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legea. Behin Senatuak oniritzia eman, eta aldaketarik jaso ezean, legea behin betiko onetsiko litzateke maizta aldean.

Hori ikusirik, honako hau jakin nahi dut:

Noizko aurreikusten du Gobernuak onestea Klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko Foru Lege proiektua eta hura Parlamentura igortzea?

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialeko urbanizazio-obrei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialeko urbanizazio-obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako Gobernuak lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilari José María Ayerdik, parlamentari honek galdetuta, joan den martxoaren 25ean aitortu zuen Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordea ez zela betetzen ari honako hauek: alde batetik, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak uztailearen 23an hartutako 64/2019 Erabakia (haren bidez ebatzi zen "Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordearen urbanizazio-proiektuaren urbanizazio-obraren lehen faseko obrak kontratatutako baldintzak arautzen dituen agiria" dela-eta aurkeztutako erreklamazio berezia, orobat agiri hori baliogabetuz eta esleipen-prozedurarekin ezin zela jarraitu deklaratu; beste alde batetik, Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko

auzien salak 2020ko ekainaren 15ean emandako 137/2020 Epaia, aurkeztutako errekurtsio ezetsi eta aipatu 64/2019 Erabakia berretsi zuena.

Jakina eta agerikoa da Konpentsazio Batzordeak, bidezko zuzenketak egin eta proiektuaren urbanizazio-obraren lehen faseko obraren agiria doitu ordez, erabaki duela jarraitzea legez kontraktasunean, egitatezko bidean eta nagusikerian, horiek baitira Aroztegia Jauregiaren proiektua sustatzen duen eta urbanizazio obrei ekin dien enpresaren ezaugarriak.

Hori dela-eta, Baztango Udalaren eskumenekoa diren jarduketak gorabehera, honako galdera hauek aurkezten dira:

Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeko kide den heinean, zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak aipatu batzordearen jarduketa legezkonatunari egokitu dakion eta bete dezan Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak uztailearen 23an emandako 64/2019 Erabakian ezarritakoa?

Obraren hasiera jakinarazi al zaio Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari?. Horrela jasotzen zen Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 765E/2017 Ebazpenean, non behin betiko onetsi baitzen Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordearen urbanizazio-proiektua.

Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeari zehapen-espeditereren bat irekitzea obrak legez kanpo hasteagatik?

Aurreikusi al du Foruzaingoaren bidez errekerimenduren bat egitea, Konpentsazio Batzordeak eta obra horiek legez kanpo egiten ari den enpresak berehala geldiaraz ditzaten?

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, 2021eko aurrekontuan Kideak programara bideratutako baliabideen destinoari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, 2021eko aurrekontuan Kideak programara bideratutako baliabideen destinoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Kideak programa Europako funtsen bidez egiten da azkenean. Departamentuak ezarrita al dauka zer proiektutara bideratuko diren 2021eko aurrekontuan programa horretarako ezarritako baliabideak?

Iruñean, 2021eko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Aroztegiko Udalez gaindiko Plan Sektorialeko obren hasierari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, Aroztegiko Udalez gaindiko Plan Sektorialeko obren hasierari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuak ba al du Aroztegiko Udalez gaindiko Plan Sektorialeko obrak hasi izanaren ziurtasunik edo Aroztegiko Jauregiaren inguruetan legez kanpoko jarduketarik egiten ari denik?

Nafarroan, 2021eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, Nafarroako kulturako pertsona ospetsuen urtebetetzeak edo santu-egunak ospatzeari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako kulturako pertsona ospetsuen urtebetetzeak edo santu-egunak ospatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen

Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Teresa Catalánen 70. urtebetetzea ospatzeko zer ekitaldi eginen diren jakin ostean jakin nahi dugu ea programazio-patroirik dagoen Nafarroako kulturako pertsona ospetsuen urtebetetzeak edo santu-egunak ospatzeko.

Hala baldin bada, zer irizpide erabiltzen dira? Norena da erabakia eta zertan dautza ekitaldiok? Nork erabakitzen ditu datak? Nortzuk dira ekitaldiotako artistak eta parte-hartzaileak?

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

4/2021 Foru Lege-dekretua, apirilaren 14koa, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heltzen diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak onetsi du 4/2021 Foru Lege-dekretua onetsi du, apirilaren 14koa, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Susperterako Europako Bitartekoetatik heltzen diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko. Aipatu foru lege-dekretua 2021eko apirilaren 23ko 93. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Nafarroako Parlamentuari igorri dio, horrek baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea 2021eko apirilaren 29ko Osoko Bilkuran eginen direla apirilaren 14koko 4/2021 Foru Lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa (10-21/DLF-00004).

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipatutako foru lege-dekretua.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

4/2021 Foru Lege-dekretua, apirilaren 14koa, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Susperterako Europako Bitartekoetatik heltzen diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko.

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz, aparteko neurriak hartu behar izan dira, zeinak oso eragin sozial eta ekonomiko handia izan baitute Europar Batasuneko estatuetan.

Europar Batasuneko Kontseiluak, horren jakitun izanik, akordio bat lortu zuen, 2020ko uztailearen 21ean, Suspertzerako Europako Bitartekoak (Next Generation EU) abian jartzeko. 750.000 milioi euroko zuzkidura dute, eta bideratuko dira zuzeneko transferentzietara (% 52) eta mailegu itzulgarrietara (% 48) 2021etik 2026ra bitarteko urteetan, pandemiak eragindako eragin sozioekonomikoa arintzeko.

Next Generation EU funtsak eskuratu ahal izateko, Europar Batasuneko estatuak beren Susperter eta Erresilientzia Plan Nazionalak prestatu behar dituzte, non zehaztuko baitute zein den beren erreforma eta inbertsio programa 2021-2023 aldirako.

Gure herrialdean, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege-dekretuaren bidez (Diputatuen Kongresuak baliozkotua, 2021eko urtarrilaren 28an egindako bilkuran), premiazko neurriak onetsi ziren Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Susperterze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana exekutatzeko.

Horregatik, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak Nafarroako Foru Komunitateari esleitzen dizkioten esku-

menak baliaturik, bereziki premiazkoa eta beharrezkoa da neurri batzuk hartzea bermatzeko modu eraginkorrean eta efizientean kudeatuko direla iritsiko diren Next Generation EU funtsak. Betetzen dira, beraz, foru lege-dekretua erabiltzeko aukera ematen duten baldintzak, zeinak ezarri baitira Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan; izan ere, badira oraingo egoeran ezaugarri horiek (salbuespenezko izaera, larritasuna eta garrantzia), beharrezkoa egiten dutenak arau ekintza bat berehala gauzatzea, Parlamentuan lege bat prozedura arruntan nahiz presakoan tramitatzeko aurreikusita dagoena baino epe laburragoan.

Atariko tituluan arau honen xedea jasotzen da: beharrezko xedapenak ezartzea eta administrazio prozedurak bizkortzea, Europako funtsekin finantza daitezkeen jarduketak (Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heltzen direnak, bereziki) programatu, aurrekontuetan jaso, kudeatu eta betearazi daitezten Nafarroako Foru Erkidegoan.

Ondoren, I. tituluan, neurri orokor batzuk ezartzen dira Next Generation EU proiektuak beteaztean aplikatzeko. Orobat, zenbait berezitasun ezartzen dira arintzeko funts horien bidez finantza daitezkeen dirulaguntzak emateko prozesua, baita prozedurak izapidetzeko eta aurrekontuak kudeatzeko eta kontrolatzeko ere.

Next Generation EU izeneko Europako funtsak kudeatzeko Espainiako arauekin bat egite aldera, zenbait neurri ezarri dira funts horien kargura finantzatutako espedienteak bizkortzeko eta malgutzeko. Horrela, bada, behar den oreka mantendu da espedienteak bizkor izapidetzearen eta barne kontrolerako organoek alde aurretik gauzatu behar duten ezinbesteko kontu-hartzearen artean, kontuan izanik, beti, ildo horretako edozein neurri bete behar dituela eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia printzipioak.

Foru ordenamendu juridikoan badagoenez aurretiazko fiskalizazio mugatuaren figura, egoki jotzen da hura erabiltzea hizpide dugun espediente mota bideratzeko, bost egun baliodunetara murrizten baita Kontu-hartzailetzak irizpena emateko duen epea, eta, horrez gain, berariaz adierazten baita espediente horiek bideratzea lehentasuna izanen duela beste edozeinen aurretik.

Europako funtsen kargura finantzatutako dirulaguntzak kudeatzeari dagokionez, horiek bizkorrago izapidetzeko xedez, ezabatzen dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean aurreikusitako baimen jakin batzuk, eta eskatu ohi diren txostenetatik gutxi batzuk

baino ez dira ezartzen. Bestalde, jotzen da gure ordenamendu juridikoan sartuta daudela, modu orokor eta iraunkorrean, Estatuko araudian hartu diren gainerako neurriak; beraz, ez da beharrezkoa horiek berariaz aipatzea, aipatuz gero berretsi besterik ez bailirateke eginen legeetan eta araubideetan aurrez ezarritako baldintzak.

Europako funtsak erabiltzearekin lotutako dirulaguntzen erabilera justifikatzeko soilik, baimena ematen da justifikazioko kontu sinplifikatuaren modalitatea jaso dadin oinarri arautzaileetan, dirulaguntzaren onuradun bakoitzari 100.000 euro baino gutxiago ematen zaizkionean. Justifikazioko kontu sinplifikatu horrek murrizten ditu onuradunek aurkeztu beharreko informazio betebeharrak.

II. tituluan, neurri batzuk ezartzen dira sektore energetikoan, zenbait instalaziotarako prozedurak bizkorrago izapidetu daitezten.

Lehenik, energia instalazio txikietarako prozedura jakin batzuk sinplifikatzen dira, kentzen baita jendaurreko informazioaren tramitea, salbu eta sustatzaileak eskatzen badu erabilera publikoaren deklarazioa, edo ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa eskatzen bada. Era berean, administrazioaren baimena eskatu behar izatetik aske uzten dira autokontsumoko instalazioak, era horretako soluzioak gara daitezten kontsumitzaileentzat.

Horrez gain, instalazio fotovoltaikoetarako neurri batzuk ezartzen dira, koordinatzeko ingurumen-ebaluazioaren eta lurzoru urbanizaezineko baimena eta administrazio baimenaren izapidea, bat etorri maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretuan teknologia eolikoari buruz ezarritakoarekin (foru dekretu horren bidez arautu zen parke eolikoetarako baimena Nafarroan).

Bestalde, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planeko erreserba zerrendako inbertsio ugari sartuko dira 2021ean. 2017. urtetik hauteman da egiten diren zenbait izapidek moteltzen dutela, behar baino gehiago, inbertsioak behin betiko sartzeko prozedura. Horrek eragina du bai toki entitateetan, ezin baitezakete erabaki obrak noiz gauzatu, bai planaren beraren aurrekontu betearazpenean. Hortaz, inbertsio horiek erreserba zerrendan sartzeko prozedura sinplifikatzeko eta bizkortzeko asmoz, foru lege-dekretu honek zuzentzen du, azken xedapenetako lehenean, abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duena, xedapen gehigarri bat erantsirik (zazpigarrena) xede horretarako.

Azkenik, azken xedapenetako bigarrenean, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen da, zenbait helburu betetze aldera.

Lehenik, 21. artikulua aldatzen da, aukera eman nahi delako ordainketaren zati bat ordain dadin enkarguak osotara bete baino lehen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere erakunde instrumentalei (aplikatu beharreko arauekin bat betiere) egindako enkarguetan.

Bigarrenik, ikusirik azken aurrekontu ekitaldien bukaeran positiboa izan dela gastu orokorretako diruzaintzako gerakina, zeina erabil baitaiteke hurrengo ekitaldiko beharrak finantzatzeko, erantsi beharra dago kreditu gehikuntzak gastu orokorretako diruzaintzako gerakinaren kargura eta diruzaintzako gerakin atxikiaren kargura finantzatzeko aukera. Horretarako, 47. artikulua aldatzen da.

Bukatzeko, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ez da ezarri aparteko kredituak edo kreditu-gehigarriak diruzaintzako gerakinarekin finantzatzeko aukera. Hori egitea posible izan dadin, foru lege horretako 48. artikulua testua aldatzen da.

Honaino azaldu diren arrazoiek justifikatzen dute foru lege-dekretu hau onestea, behar-beharrezkoa baita aipatu neurriak berehala hartzea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita bateko apirilaren hamalauan egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritz,

DEKRETATZEN DUT:

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

Foru lege-dekretu honen xedea da xedapen batzuk ezartzea, beharrezkoak direnak Susperterako Europako Bitartekoetatik heltzen diren Europako funtsekin finantza daitezkeen jarduketak programatzeko, horiek aurrekontuetan jasotzeko, kudeatzeko eta gauzatzeko Nafarroako Foru Erkidegoan. Europako Kontseiluak onetsi zituen bitarteko horiek 2020ko uztailaren 21ean, honako helburu hauek zituela: hazkunde ekonomikoa eta enplegu sorrera bultzatzea, SARS-CoV-2aren pandemiak eragindako krisiaren kalteak konpontzea nahiz leheneratzea, eta, azkenik, egiturazko eraldaketa prozesu bat sustatzea inbertsio publiko eta pribatua bultzatuta, ekoizpen ehunari babesa emanda, trantsizio ekologikoa eta digitala

azkartuta, eta erresilientzia eta kohesio ekonomikoa, soziala zein lurraldekoa sendotu eta handituta Europako merkatu bakarraren esparruan.

2. artikulua. Next Generation EU proiektuak.

Foru lege-dekretu honen ondorioetarako, "Next Generation EU proiektuak" dira Europar Batasuneko Susperterako Europako Bitartekoak tresnaren baitako proiektuak edo ekimenak, zeinak, gauzatu ahal izateko, Foru Komunitatearen edo haren erakunde autonomoen gastu aurrekontuko kredituak erabiltzeko beharra duten, baita Europako Lurraldeak eta Kohesioa Berreskuratzeko Laguntza Funtzak (REACT-EU) erabiltzekoa ere. Kudeaketa agintaritzak nazional batek identifikaturik behar dute, eta bete behar dituzte abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege-dekretuak 46. artikuluan ezarritako baldintzak (errege lege-dekretu horren bidez premiazko neurriak onetsi ziren Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Susperterako, Eraldatze eta Erresilientziarako Plana gauzatzeko).

I. TITULUA

Next Generation EU proiektuak gauzatzeko aplikatu beharreko neurri orokorrak

I. KAPITULUA

Prozedurak izapidetzeko berezitasunak

3. artikulua. Premiaz izapidetzea Susperterako Europako Bitartekoetatik heltzen diren Europako funtsen kargura ordaintzen diren gastuak exekutatzeko administrazio prozedurak.

1. Deklaratzen da presako izapidetzea eta lehentasunezko izapidetzea aplikatuko direla Susperterako Europako Bitartekoetatik heltzen diren Europako funtsen kargurako gastuak exekutatzeko dakarten administrazio prozeduretan. Izapidetze horiek aplikatuko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 33. eta 71. artikuluetan ezarritako baldintzetan, hurrenez hurren; eta, horretarako, ez da beharrezkoa izan administrazio organoak premiaren arrazoiak adieraztea hasiera emateko erabakian.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoak ez du deusetan galarazten foru lege-dekretu honen 9. artikuluan ezarritakoa.

3. Ez da murriztuko, inola ere ez, eskabideak eta errekurtsioak aurkezteko epeen iraupena.

4. artikulua. Europako funtsen kargurako proiektuak gauzatzeko izenpetutako hitzarmenak.

Gerta daiteke Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, haren erakunde publikoek eta

zuzenbide publikoko erakundeek, berdin lotetsiak edo mendekoak izan, hitzarmenak egitea Susperterako Europako Bitartekoetatik heltzen diren Europako funtsen kargurako proiektuak gauzatzeko. Hitzarmen horiek izapidetzean beteko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen V. titulu-ko II. kapituluaren ezarritakoa, berezitasun batekin: justifikazio memoria, arlo ekonomikoa eta arauena jorratuko dituen (90. artikuluan jasotakoa) hitzarmena onetsi ondoren egin ahal izanen da.

II. KAPITULUA

Kontu-hartzailatza eginkizuna

5. artikulua. Aurretiazko kontrol araubidea, Next Generation EU proiektuetako funtsen kudeaketaren esparruan izapidetutako espedientei aplikatzeko.

1. Next Generation EU proiektuetako funtsen kudeaketaren esparruan izapidetutako espedientei kontu-hartzailatza eginkizuna aplikatu dakieke, Nafarroako Gobernuak hala erabakitzen duenean Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak 98.3 artikuluan xedatutakoaren babespean.

2. Bideratzean, espediente horiek lehentasuna izanen dute beste edozeinen aurretik, eta kontrol organoak bere erabakia adierazi beharko du bost eguneko epean.

III. KAPITULUA

Next Generation EU proiektuetako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntzak emateko prozesua bizkortzeko neurriak

6. artikulua. Next Generation EU proiektuetako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntzak izapidetzeko baldintzak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aplikatzen zaien dirulaguntzak eta laguntzak ematean, ezin izanen dira eskatu foru lege horren beraren 7.3 artikuluan ezarritako baimenak, Nafarroako Gobernuak eman beharrekoak.

7. artikulua. Next Generation EU proiektuetako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak.

Dirulaguntza horien deialdia eta oinarri arautzaileak onesteko izapideak egiteko, txosten juridikoa baizik ezin izanen da eskatu, Kontu-hartzailatzaile espedienteak fiskalizatu beharko duen hamar egun naturaleko epe luzaezinean; bat eto-

rriz Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak 14.2 artikuluan xedatutakoarekin.

8. artikulua. Dirulaguntzak aplikatzearen frogagiriak.

1. Frogatzeko aplikatu direla Next Generation EU proiektuetako funtsak erabiltzearekin lotutako dirulaguntzak, justifikazioko kontu sinplifikatuaren modalitate bat ezar daiteke oinarri arautzaileetan, onuradun bakoitzeko 100.000 euro baino gutxiagoko dirulaguntzak ematen direnean.

2. Justifikazioko kontu sinplifikatuak informazio hau izanen du:

a) Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak betetzen dituela frogatzeko jarduketaren memoria bat, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azalduko dituen.

b) Diruz lagundutako jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekoduna eta agiria identifikatuta, baita zenbatekoa, jaulkipen eguna eta, kasua bada, ordainketa eguna ere. Baldin dirulaguntza ematen bada iritzira kalkulatu-tako aurrekontu baten arabera, adieraziko da zer desbideratze izan diren.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako dirulaguntzen edo diru-sarreraren xehetasuna, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Hala balegokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, baita haie-tatik eratorritako interesena ere.

3. Justifikazioko kontu sinplifikatuaren modalitate hori aukeratzen denean, organo emaileak egoki iruditzen zaizkion frogagiriak aukeratuko ditu, oinarri arautzaileetan ezarritako laginketa tekniken bidez, arrazoiz frogatzeko dirulaguntza behar bezala aplikatu dela. Horretarako, onuradunari eskatu ahal izanen dio bidal ditzala hautatutako gastuen frogagiriak.

4. Justifikazioko kontu sinplifikatu horrekin lotutako ez-betetzeak jokabide arau-hausletzat hartuko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 42. artikuluko 1.1 apartatuko b), c), f) eta g) letretan ezarritakoaren arabera, kasua zein den.

IV. KAPITULUA

Kontratazioaren arloko berezitasunak

9. artikulua. Presako tramitazioa.

1. Next Generation EU proiektuetako funtsekin finantzatu diren esparru hitzarmenak eta kontratuak lizitatzen direnean, kontratazio organoek

aztertu beharko dute ea premiazko egoerak garaizten duen lizitazio prozedurak modu arruntean izapide daitezzen. Espedientea presako gisa kalifikatzen baldin bada, arrunten modu berean izapidetuko da, baina erabaki ahal izanen da kontratua gauzaten hastea hura formalizatu aurretik eta mugaeguneratzen denean Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101.2 artikuluan ezarritako etete epea. Horretarako, alabaina, eraturik behar dute kontratuaren betebeharrak betetzeko ezarri diren bermeek, baldin horrelakorik bada.

2. Next Generation EU proiektuetako funtsekin finantzatu diren esparru hitzarmenak eta kontratuak izapidetzean esku hartzen duten organoek lehentasuna eman behar diote horiek bideratzeari, beste edozein kontraturen aurretik. Era berean, bost egun naturaletara murriztuko da txosten bakoitza emateko epea. Epe hori ezin izanen da luzatu.

10. artikulua. Kontratuen indarraldia luzatzea.

Salbuespenez, Next Generation EU proiektuen funtsekin finantzatu diren zerbitzu energetikoen kontratuetan eta hornidurako kontratuetan, iraupen epe luzeagoa ezarri ahal izanen da Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 45.2 artikuluan xedatutakoa baino; baldin eta beharrezkoa bada kontratuarekin lotura zuzena duten inbertsioak berreskuratzeko epea dela-eta, eta inbertsio horiek ezin badaitezke erabili kontratistaren gainerako ekoizpen jardueran, edo horiek erabiltzea ez bada errentagarria. Horretarako, alabaina, inbertsioen amortizazioak kostu garrantzitsua izan behar du hornidura edo zerbitzua ematean. Inguruabar horiek kontratazio espedientean frogatu behar dira, adierazita zer inbertsio diren eta zein den horiek berreskuratzeko epea.

11. artikulua. Enkarguak erakunde instrumentalei.

Erakunde instrumentalekin egindako kontratuei ez zaie aplikatuko Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8. artikuluko 7. apartatuaren bigarren paragrafoan ezarritako muga, halako erakundeei agindu zaienean, Next Generation EU proiektuetako funtsen kargura, zerbitzu informatikoak eta teknologikoak eman diezazkioten Administrazio Publikoari, sareen eta sistemen bateragarritasuna, komunikagarritasuna eta segurtasuna bermatzeko, informazioaren segurtasuna, fidagarritasuna eta konfidentzialtasuna garantizatzen, telekomunikazioak sustatzeko, eta informazioaren gizarte eta gizarte digitala garatzeko.

II. TITULUA

Sektore elektrikoaren neurriak

12. artikulua. Jendaurreko informazioaren tramiak energia elektrikoaren instalazioetarako.

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren menpe ez badaude eta erabilera publikoko deklarazio zehatza eskatzen ez bada, ez da jendaurreko informazioaren tramiterik eskatuko administrazio baimena eman dakien instalazio hauei:

a) 1 MW-eko edo gutxiagoko potentzia ekoizteko eta transformatzeko instalazioak eta ebakuazio leerroak.

b) 66 kV-eko edo gutxiagoko tentsio izendatutako instalazioak.

c) 66 kV baino gehiagoko tentsio izendatutako instalazioak aldatzea, titularraren instalazioen barruan kokatutakoak.

d) Aldi baterako instalazioak.

13. artikulua. Energia iturri berriztagarrietatik energia elektrikoa sortzeko instalazioen administrazio baimena.

Jarraian adieraziko diren instalazioek, zeinek energia iturri berriztagarrietatik energia elektrikoa sortzen baitute, ez dute aurretiazko administrazio baimenaren beharrik izanen, ez eta eraikitzeko administrazio baimenaren edo ustiatzeko baimenaren beharrik ere, non eta ez dauden ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren menpe. Bai aurkeztu beharko dituzte, ordea, aplikatu beharreko araubide teknikoaren arabera beharrezkoak diren agiriak. Instalazio horiek dira:

a) Soberakinik ez duten autokontsumo modalitateko instalazioak.

b) Soberakina duten autokontsumo modalitateko instalazioak, baldin eta konektaturik badaude 1 kV-eko tentsioa baino gutxiagoko sareetara.

c) Instalazio isolatuak.

14. artikulua. Koordinazio prozedurak, teknologia fotovoltaikotik abiatuta energia elektrikoa sortzen duten instalazioetarako.

1. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren menpean diren instalazio fotovoltaikoetarako eta horien ebakuazio azpiegituretarako, sustatzaileak lurzoru urbanizaezinean jarduerak baimentzeko eskaera aurkeztuko du, energiaren arloan esku-mena duen zuzendaritza nagusiari zuzendua.

2. Lurzoru urbanizaezinean jarduerak baimentzeko eskaera aurkeztuko da ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari hasiera emateko eskaera aurkeztez batera.

3. Energiaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak egiaztatuko du dokumentazioa behar bezala dagoela, eta, beharrezkoa bada, hamar eguneko epean zuzentzeko eskatuko du. Hamar eguneko epean, halaber, dokumentazio osoa igorriko die ingurumen arloko organoari eta lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko eskumena duen organoari.

4. Lurzoru urbanizaezinean jarduera baimengarriak egiteko baimena beharko da, lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko legeria indardunean araututakoa, eta instalazioaren aurretiazko administrazio baimena baino lehen eman beharko da.

Xedapen gehigarri bakarria. Gardentasuna.

Hiru hilez behin, Nafarroako Gobernuak agerrialdia egingen du Nafarroako Parlamentuan, honako hauei buruzko argibideak emateko: zer proiektu aurkeztu dituen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari gehi dakizkion; nola aplikatu diren plan horretatik, Ekonomia Suspertzeko eta Eraldatzeko proiektu estrategikoetatik edo Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren ondorioz sortu eta Espainiako Gobernuak transferitutako beste edozein tresnetatik jasotako funtsak; zein izan den funts horiek banatzeko erabilitako deialdiak, hitzarmenak, kontratuak eta bestelako tresnak baliatzearen ebaluazioa; noraino bete diren funts horiekin eta horien askotariko aplikazioekin lortu nahi ziren helburuak; eta antzeko beste datu eta agiri batzuk, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorri dizkionak, hala zegokiolako, funts horien exekuzioarekin loturik.

Azken xedapenetako lehena. Aldaketak egi-tea abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeari, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duenari.

Zazpigarren xedapen gehigarria erasten zaio abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeari, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duenari, zeinak testu hau izanen baitu:

“Zazpigarren xedapen gehigarria. 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planeko erreserba zerrendako inbertsioei aplikatzeko araubidea.

1. Foru lege hau aplikatuko zaie Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak urtarrilaren 20an emandako 4/2021 Ebazpeneko erreserba zerrendan ageri diren inbertsioei, xedapen honetan araututakoarekin bat egiten ez duen orotan. Ebazpen horren bidez onetsi ziren, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planari dago-kionez, erreserban dauden inbertsioen zerrenda

eguneratuak eta planarekin lotutako aurrekontu partidetan gerta daitezkeen soberakinak banatzeko irizpideak.

2. Inbertsioen tramitazioa bizkortzeko eta 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana bukatzeko, araubide berezi sinplifikatu hau ezartzen da:

a) Aurrekontu baliabideen kargura finantza daitezkeen inbertsioak behin-behinean sartuko dira, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez.

b) Behin betiko sar daitezzen, toki erakunde onuradunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

– Exekuzio proiektua, organo eskudunak onetsia, bilduko duena Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 163. artikuluan zehaztutako edukia.

– Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko baduela 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planak estaltzen ez duen inbertsioaren zatirako finantzaketa.

– Kasua bada, foru lege honetako 17. artikuluan adierazitako salbuespenezko araubideari heltzeko eskabidea. Horretarako, aipatu manu horretan araututako dokumentazioa aurkeztu beharra dago, aurreko paragrafoan aipatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharrean.

Dokumentazio hori aurkezteko, bi hilabeteko epea izanen da, zenbateko txikiko kontratuen gaineko araubide bereziaren arabera tramitatzen diren proiektuetarako, eta hiru hilabetekoa, gaineko proiektuetarako, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Agiriak ezarritako epeetatik kanpo aurkezten badira, dena delako inbertsioa erreserba zerrendatik ezabatuko da, eta ez da behin betiko sartuko.

c) Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunek txosten tekniko, ekonomiko eta juridiko lotesleak egingen dituzte.

Txosten ekonomikoa egiteko, zerbitzu eskudunak aztertuko du apartatu honetako b) letran aipatutako erantzukizunpeko adierazpena. Horrez gain, toki erakundeak eska diezaiokete aurkez dezala beharrezko iruditzen zaion informazio gehigarria. Toki erakundeak hogeiei egun balioduneko epea izanen du hura aurkezteko, errekerimendua egin denetik zenbatzen hasita; halaxe xedatu baita Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan.

Adierazitakoa betetzen dela frogatzeko errekeritzen den dokumentazioa ez bada epe barruan aurkezten, ezin izanen da aurrera egin inbertsioa behin betiko sartzeko prozeduran.

Gerta daiteke errekeritu eta epe barruan aurkeztutako dokumentazioak ez frogatzea deklaratu-tako hura betetzen dela. Horrelakoetan, toki erakundeak hamar egun balioduneko epea izanen du, inguruabar hori jakinarazten zaionetik, foru lege honen 17. artikuluan aurreikusitako salbuespenezko araubideari heltzea eskatzeko.

d) Nahitaezko txosten guztiak aldekoak baldin badira, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bidez, jarduketa behin betiko sartuko da Toki Inbertsioen Planean eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatuko da”.

Azken xedapenetako bigarrena. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzea.

1. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 21. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Hauxe da testu berria:

“2. Betebehar horiek Foru Komunitatearen prestazio edo zerbitzuetatik sortuak badira, ez da zilegi ordainketa egitea baldin eta hartzekodunak bere betebeharra bete edo bermatu ez badu, salbu eta neurri hori hartzeak eragiketaren atarmentuari kalte eragin badiezaioke. Debeku hori ez zaie aplikatuko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere erakunde instrumentalekin dituen harremanei, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritik egindako enkarguen esparrukoei; hala ere, ezin izanen da alde aurretik ordaindu enkargurako ezarri den prezioaren %50 baino gehiagoko zenbatekoa”.

2. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 47. artikuluko 3. apartatua aldatzen da. Hauxe da testu berria:

“3. Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak eman behar du baimena aurreko 1. apartatuan aipatzen diren kredituen gehikuntzarako. Aurrekontuetako edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuen kargura finantzatu behar dira gehikuntza horiek, salbu eta foru lege honen 50. artikuluko 2. apartatuan aipatutakoak, edo bestela, ekitaldi ekonomiko bereko diru-sarrera handiagoen kargura (diru-sarrera horiek errealak edo aurreikusitakoak direla ere), jatorrian dagoen gastua egiteari lotutako diruzaintzako gerakinaren aplikazioaren kargura edo gastu oro-

korretarako diruzaintzako gerakinaren kargura, positiboa denean. Kredituen gehikuntza hori eskaera egiten duenaz beste departamentu baten kargura finantzatu behar denean, Nafarroako Gobernuaren onespena beharko da, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta”.

3. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Hauxe da testu berria:

“2. Foru lege proiektu horretan zehaztu behar da zein baliabide diren egin nahi den gastu handiago hori finantzatu dutenak; edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuk izan daitezke, are Parlamentuak zuzenketen edo foru lege honetako xedapenen ondorioz berariaz onetsitako kredituetakoak, edo bestela, ekitaldi ekonomiko bereko diru-sarrera handiagoen kargura (diru-sarrera horiek errealak edo aurreikusitakoak direla ere), jatorrian dagoen gastua egiteari lotutako diruzaintzako gerakinaren aplikazioaren kargura edo gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura, positiboa denean”.

Azken xedapenetako hirugarrena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikulua 2. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako laugarrena. Erregelamendu bidez garatzea eta betearaztea.

Gaikuntza ematen zaio Nafarroako Gobernuari, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko departamentuetako titularrei ere, zeinek bere eskumenen barnean, behar adina xedapen eman ditzaten, foru lege-dekretu honetan ezarrita dagoena garatzeko eta betearazteko.

Azken xedapenetako bosgarrena. Indarra hartzea eta indarraldia.

Foru lege-dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2021eko apirilaren 14an

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: María Chivite Navascués

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

